



TOLOSAKO  
UDALA

## GOBERNU BATZARRA

2018.12.03

**Alkatea:**

**Olatz Peon Ormazabal**

**Bertaratutako zinegotziak:**

**Patxi Amantegi Zubiria**

**Nerea Letamendia Belloso**

**Jokin Azkue Arrastoa**

**Ez bertaratutako zinegotzia:**

**Iñigo Alonso Sarasibar**

**Idazkaria:**

**Begoña Garmendia Vazquez**

**Kontuhartzailea (ordezkoa):**

**Paulino Alonso Eraso**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko abenduaren hiruan, 08:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da, eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. Aurreko akta onartzea.
2. Akats zuzenketa onartzea Tolosako hainbat kale hiritartzeko lanak egiteko obren kontratuan.
3. Onartzea Iturriza elkarteari 2018. urtean diru-laguntza izenduna emateko hitzarmena.
4. Onartzea Harizpe elkarteari 2018. urtean diru-laguntza izenduna emateko hitzarmena.
5. Onartzea diru-laguntza izendun hau: Herrikide Ikastetxearekin hitzarmena, "Etorkinentzat euskarazko errefortzu-eskolak" proiektua aurrera eramateko.
6. Onartzea Tolosako udalerrian gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu-kontratua arautuko duen kontratuaren esleipenaren kontratazio jardunbidea, eta hasiera ematea.
7. 65/2018 eta 66/2018 faktura-zerrendak.



## **1. AURREKO AKTA ONARTZEA.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2018ko azaroaren 26an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute akta.

## **2.AKATS ZUZENKETA ONARTZEA TOLOSAKO HAINBAT KALE HIRITARTZEKO LANAK EGITEKO OBREN KONTRATUAN.**

### **1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK**

Kontratuaren xedea	Tolosako hainbat kaleen hiritartze lanak egiteko obren kontratazioa.
Unitate sustatzailea	Tolosako udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Saila
Espedientea	B.5.2.1/2017/0059

Txosten hau ematen da Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen II. Xedapen Gehigarriaren 7. eta 8. ataletan araututakoaren arabera, non Udal Idazkariari ematen zaion kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

### **2.- AURREKARIAK**

Lehena.- Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko abenduaren 18an, besteak beste, Tolosako hainbat kaleen hiritartze lanak egiteko proiektua onartu zuen. Obra hauek lau loteetan banatzen ziren hala nola:

- Lote 1: Pedro de Tolosa 5 eta 7.
- Lote 2: Batxiller Zaldibia 2 eta 4.
- Lote 3: Korreo kalea – Kale Nagusia pasabidea.
- Lote 4: Kale Nagusia – Enperadore kalea pasabidea.

Halaber, Gipuzkoako Ur Kontsorzioarekin lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuen Udalak 2017ko abenduaren 26an. Horren bitartez, Tolosako Udalak bere gain hartzen zuen aipatutako eremuetan egin beharreko obra zibila, obren kontratazioa, obra zuzendaritza eta segurtasun ardura. Horretaz gain, Tolosako Udalak hartzen zuen obrak esleitzeko ardura eta bere gain hartzen zuen obren kostua, ur hornidurako eta saneamendu sareen berrikuntzako lanak izan ezik; azken hauek Ur Kontsorzioak ordaindu beharko zituelarik. Era horretan, Tolosako Udalak bere eskumenari zegozkion lanak finantzatuko zituen,



TOLOSAKO  
UDALA

hitzarmenean xedaturiko kopurua arte, lizitazio jardunbidean egon zitezkeen beherapenekin.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen zuen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 109. artikulua xedatzen zuenez, esleipen-jardunbidea osatzen zuten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espeditentea egin behar zen. Espeditentea Lege horren 109. artikulua ezarritakoaren arabera egin zen eta 110.1 artikulua xedatzen zuenaren arabera onartu zen, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espeditentea aztertu ondoren, honako dokumentu hauek zituela egiaztatu zen:

- Espeditenteari hasiera emateko proposamena.
- Proiektua.
- Kontu-hartzailearen txostena, kreditu-izaera egiaztatzen duena, kontratua bere osotasunean finantzatzeko.
- Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria.
- Ur Kontsortzioarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena.

Kontratu honek administrazio-izaera zuen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen zuen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 19.1 artikulua arabera: *“Administrazio-izaera izango dute kontratu hauek, herri-administrazioaren batek egiten baldin baditu: a) Obra-kontratuek, herri-lanaren kontzesioko kontratuek, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuek, hornidura-kontratuek eta zerbitzu-kontratuek, bai eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren kontratuek ere.”*. Aipatutako kontratu mota, obra-kontratua hain zuzen ere, Lege horren 6. artikuluan arautzen zen, ondokoa xedatzen zuenari: *“1. Obra-kontratua da objektutzat duena obraren bat egitea, I. eranskinean zerrendaturiko lanetako bat egitea edo sektore publikoko erakunde kontratatzaileak zehaztutako beharrezkoak betetzeko edozein bitarteko erabiliz obra bat gauzatzea. Prestazio horietaz gain, kontratuak, hala egokituz gero, dagokion proiektua idaztea ere hartu ahal izango du bere barnean. 2. Obratzat joko da objektutzat ondasun higiezin bat duten eta berez eginkizun ekonomiko edo tekniko bat betetzeko egiten diren eraikuntzako edo ingeniariaren zibileko lan batzuen emaitza.”*

Kontutan hartu behar da, kontratua lau loteetan banatuta zegoela eta bakoitzaren iraupena desberdina zela.

Lizitaziorako oinarritzko aurrekontua %21ko BEZa barne, 175.508,62 eurokoa zen, horietatik 145.048,44 euro printzipalari zegozkion eta 30.460,18 euro BEZari, honako banaketaren arabera:



Loteak	Eremua	Iraupena	Printzipala	BEZa %21	Guztira
Lote 1	Pedro de Tolosa	5 aste	34.569,78	7.259,66	41.829,44
Lote 2	Batxiller Zaldibia	3 aste	52.580,22	11.041,85	63.622,07
Lote 3	Korreo-Nagusia pasabidea	2 aste	34.389,13	7.221,72	41.610,85
Lote 4	Nagusia-Enperadore pasabidea	2 aste	23.509,31	4.936,95	28.446,26

Beraz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen zuen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 88. artikulua araber, kontratuaren balio zenbatetsia (BEZa kenduta), 145.048,44 eurokoa zen.

Lanen finantzaketari dagokionean, Udalak kreditu egokia eta nahikoa zuela ziurtatu zuen Kontuhartzaileak kontratua gauzatzeko eragingo zizkion betebeharrak ekonomikoek aurre egiteko, ondorengo udal aurrekontuaren partida honetan: 1.0700.601.01.153.20. 2017

Nahiz, eta kopuruak prozedura negoziatua ahalbideratuko lukeen, prozedura irekia erabili zen.

Kontratazio-espeditarekin batera, kontratu hori araupetzeko proposatu zen Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria aztertu zen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 115., 116. eta 117. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen zuen urriaren 12ko 1098/2001ko Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa kontuan harturik, araututako xedapenekin bat zetoirela egiaztatu zelarik.

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikak jasotzen zituen xedapenak hartu ziren kontutan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen zuen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen II. Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere. Hori kontuan izanik eta ezarritako zenbatekoak gainditzen ez zirenez, eskumena Alkate-Udalburuarena zen; hala ere Alkateak, eskuordetu zituen Alkatetzaren Dekretu bidez 60.000,00 euroko kontratazio handiagoak Tokiko Gobernu Batzordean, baina kontuan hartuta urte bukaera zela eta azkeneko Gobernu Batzordean gaia jorrazteko denborarik ez zegoenez, Alkateak eskumena berenganatu zuen eta Dekretuz onartu zen.

Bigarrena.- Behin aurreko guztia onartuta, lizitazioa GAO-n eta Kontratatzailearen Profileen iragarri zen eta enpresek euren proposamenak aurkeztu zituzten. 2018ko uztailaren 2an, behin jardunbide osoa eginda, Tokiko Gobernu Batzarrak Construcciones Echaide, S.A. enpresari esleitu zizkion kontratuaren lau loteak, prezio hauetan:



<b>1 LOTEA.- PEDRO DE TOLOSA</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Printzipala: 32.671,88 €</li><li>• BEZa: (% 21): 6.861,09 €</li><li>• Prezio totala: 39.532,97 €</li><li>• Epea: 5 aste</li></ul>	<b>2 LOTEA.- BATXILER ZALDIBIA</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Printzipala: 43.394,98 €</li><li>• BEZa: (% 21): 9.112,95 €</li><li>• Prezio totala: 52.507,93 €</li><li>• Epea: 3 aste</li></ul>
<b>3 LOTEA.- KORREO NAGUSIA PASABIDEA</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Printzipala: 28.321,93 €</li><li>• BEZa: (% 21): 5.947,61 €</li><li>• Prezio totala: 34.269,54 €</li><li>• Epea: 2 aste</li></ul>	<b>4 LOTEA.- NAGUSIA-ENPERADORE PASABIDEA</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Printzipala: 19.171,26 €</li><li>• BEZa: (% 21) : 4.025,96 €</li><li>• Prezio totala: 23.197,22 €</li><li>• Epea: 2 aste</li></ul>

Hirugarrena.- Kontratua 2018ko uztailaren 18an sinatu zuten Tolosako Udalaren eta Construcciones Echaide, S.A. enpresaren ordezkariak.

Aipatzekoa da akats bat zegoela kontratuan, horren aurrekarietan Lote 1 Pedro de Tolosa eta Lote 2 Batxiller Zaldibia dela esaten zelako eta kontratuari atxikirik, eta honen zati banaezina den Baldintza Pleguan, Lote 1 Batxiller Zaldibia eta Lote 2 Pedro de Tolosa dela jartzen zuen. Akats hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen iragarkian ere islatzen da, lizitazioaren oinarriko aurrekontuan egindako banaketa ez zetorrelako bat, formalizazioan zetorren banaketarekin. Beraz, gaizki-ulertuak ekiditeko hemendik aurrera, kontratuan egindako banaketa izango dira kontutan.

- Lote 1: Pedro de Tolosa 5 eta 7.
- Lote 2: Batxiller Zaldibia 2 eta 4.
- Lote 3: Korreo kalea – Kale Nagusia pasabidea.
- Lote 4: Kale Nagusia – Enperadore kalea pasabidea.

Laugarrena.- Legeak agindutakoa betetzearren, 2018ko abuztuaren 6an, zuinketaren egiaztapen-akta sinatu zuten obra zuzendariak, kontratistak eta Udalaren ordezkariak.

Bosgarrena.- Behin egin beharreko obra guztiak bukatzeaz daudela, Udal Ingeniariak 2018ko urriaren 31n igorritako txosten baten bitartez, esleipenean akats bat zegoela esaten zuen, Gipuzkoako Ur Kontsorzioarekin sinatutako hitzarmena eta Baldintza Zehatzen Pleguan jarritakoa, esleipenean eta kontratuan aipatu ez zelako. Horregatik, Gipuzkoako Ur Kontsorzioari zegokion zenbatekoa ez zen esleipenean argi utzi eta Tolosako Udalari egotzi zitzaion osorik.

Txosten berdinean, Construcciones Echaide, S.A. enpresarekin sinatutako kontratuaren lau loteetan aldatetak egitea proposatzen du, Gipuzkoako Ur Kontsorzioak ordaindu beharreko zatia aldatu behar delako. Horren ondorioz, esleipenaren zenbatekoa guztira ez litzateke aldatuko, baina Tolosako Udalak ordaindu beharrekoa gutxitu egingo litzateke, jarraian agertzen den moduan:



<b><u>ONARTU ZENA ETA ALDATU BEHARREKOA</u></b>	<b><u>ALDAKETA PROPOSAMENA</u></b>
<p>1 LOTEA.- PEDRO DE TOLOSA</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Printzipala: 32.671,88 €</li><li>• BEZa: (% 21): 6.861,09 €</li><li>• Prezio totala: 39.532,97 €</li></ul>	<p>1 LOTEA.- PEDRO DE TOLOSA</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Printzipala: 32.671,88 €</li><li>• BEZa: (% 21): 6.861,09 €</li><li>• Prezio totala: 39.532,97 €</li></ul> <p><u>Tolosako Udala</u></p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Printzipala: 30.893,76 €</li><li>• BEZa: (% 21): 6.487,69 €</li><li>• Prezio totala: 37.381,45 €</li></ul> <p><u>Gipuzkoako Ur Kontsortzioa</u></p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Printzipala: 1.778,12 €</li><li>• BEZa: (% 0): 0,00 €</li><li>• Prezio totala: 1.778,12 €</li></ul>
<p>2 LOTEA.- BATXILER ZALDIBIA</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Printzipala: 43.394,98 €</li><li>• BEZa: (% 21): 9.112,95 €</li><li>• Prezio totala: 52.507,93 €</li></ul>	<p>2 LOTEA.- BATXILER ZALDIBIA</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Printzipala: 43.394,98 €</li><li>• BEZa: (% 21): 9.112,95 €</li><li>• Prezio totala: 52.507,93 €</li></ul> <p><u>Tolosako Udala</u></p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Printzipala: 38.810,98 €</li><li>• BEZa: (% 21): 8.150,95 €</li><li>• Prezio totala: 49.960,17 €</li></ul> <p><u>Gipuzkoako Ur Kontsortzioa</u></p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Printzipala: 4.584,92 €</li><li>• BEZa: (% 0): 0,00 €</li><li>• Prezio totala: 4.584,92 €</li></ul>
<p>3 LOTEA.- KORREO NAGUSIA PASABIDEA</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Printzipala: 28.321,93 €</li><li>• BEZa: (% 21): 5.947,61 €</li><li>• Prezio totala: 34.269,54 €</li></ul>	<p>3 LOTEA.- KORREO NAGUSIA PASABIDEA</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Printzipala: 28.321,93 €</li><li>• BEZa: (% 21): 5.947,61 €</li><li>• Prezio totala: 34.269,54 €</li></ul> <p><u>Tolosako Udala</u></p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Printzipala: 23.950,14 €</li><li>• BEZa: (% 21): 5.029,53 €</li><li>• Prezio totala: 28.979,67 €</li></ul> <p><u>Gipuzkoako Ur Kontsortzioa</u></p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Printzipala: 4.371,79 €</li><li>• BEZa: (% 0): 0,00 €</li><li>• Prezio totala: 4.371,79 €</li></ul>



4	LOTEA.-	NAGUSIA-ENPERADORE	4	LOTEA.-	NAGUSIA-ENPERADORE
	PASABIDEA			PASABIDEA	
	• Printzipala:	19.171,26 €		• Printzipala:	19.171,26 €
	• BEZa: (% 21 :	4.025,96 €		• BEZa: (% 21 :	4.025,96 €
	• Prezio totala:	23.197,22 €		• Prezio totala:	23.197,22 €
				<u>Tolosako Udala</u>	
				• Printzipala:	19.171,26 €
				• BEZa: (% 21):	4.025,96 €
				• Prezio totala:	23.197,27 €
				<u>Gipuzkoako Ur Kontsortzioa</u>	
				• Printzipala:	0,00 €
				• BEZa: (% 0):	0,00 €
				• Prezio totala:	0,00 €

Aipatu bezala, 2017ko abenduaren 26an Tokiko Gobernu Batzordeak Gipuzkoako Ur Partzuergoarekin egindako hitzarmena aldatu zuen eta egun berean, zegokion hitzarmena sinatu zen Gipuzkoako Ur Partzuergoaren eta Tolosako Udalaren artean, non aipatutako lanen zati baten finantziazioa bere gain hartzen zuen Kontsortzioak.

Kontratu horren bosgarren klausulan, hau zehazten zen: *“Obra ziurtagiri bakoitzean Gipuzkoako Ur Kontsortzioak ordaindu behar duen kopurua zehaztuko da. Era horretan, Tolosako Udalak ordainagiri bat luzatuko dio Gipuzkoako Ur Partzuergoari aipatu kopuruarengatik, eta azken honek 20 eguneko epean ordainduko dio udalari...”*.

### **ARAUBIDE JURIDIKOA**

Kontratu hau, 2017an indarrean zegoen legeak arautzen zuen, hau da 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen zuena.

Aipatutako legearen 105. artikulua, hau xedatzen zuen kontratuen aldaketei buruz: *“sektore publikoko kontratuak ondorengo kasu hauetan bakarrik aldatu ahal izango dira: pleguetan edo lizitazio-iragarkian hala aurreikusi denean, edota 107. artikuluan adierazitako kasuetan, bertan adierazitako mugekin.... 2. Kontratua ezin izango da aldatu hasieran kontratatutakoari prestazio osagarriak eransteke, ezta objektua zabaltzeko ere, kontratua prestatzeko dokumentazioan aurreikusita ez zeuden helburu berriak betetzearren. Modu independentean erabili edo aprobeixatu ahalko litzatekeen prestazio bat gehitzeko ere ezin izango da aldatu.”*.

Dagokigun kasuan, Baldintza Zehatzen Pleguaren 24. klausulan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginera zuzentzen gaitu eta bereziki, horren 219. eta 234.



artikuluetara. Aipatutako Legearen 219. artikuluan, argi zehazten zen kontratuak aldatzeko eskumena: *“1. Administrazio-kontratuak interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango dira, I. liburuko V. tituluaren aurreikusitako kasuetan eta moduan, eta 211. artikuluan araututako prozedurari jarraiki. Kasu horietan, kontratazio-organoak erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistentzat. 2. Kontratuaren aldaketak legearen 156. artikuluan xedatutako moduan formalizatu behar dira.”.*

Berebiziko garrantzia du Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 234. artikulua xedatzen zuena, obra-kontratuaren aldatzeari buruzkoa: *“234. artikulua. Obra-kontratuaren aldatzea. 1. Lege honen 219. artikuluan eta I. liburuko V. tituluaren ezarritakoaren arabera erabakitzen diren obra-kontratuaren aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat....”.*

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak bere 211. artikuluan hau zehazten zuen: *“1. Kontratuaren interpretatzeari, aldatzeari eta suntsiarazteari buruzko erabakiak hartzeko bideratzen diren prozeduretan entzun egin beharko zaio kontratistari...”.*

Administrazio Publikoen Kontratuen Erregelamenduak, bere 102. artikuluan hau zehazten du. *“Cuando sea necesario introducir alguna modificación en el contrato, se redactará la oportuna propuesta integrada por los documentos que justifiquen, describan y valoren aquélla. La aprobación por el órgano de contratación requerirá la previa audiencia del contratista y la fiscalización del gasto correspondiente.”.*

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak, argi uzten zuen kontratu bat aldatzeko eman behar diren baldintzak eta aldaketa gauzatzeko pausoak, baina kasu honetan ez gara kontratu baten aldaketa bati buruz ari, baizik akats zuzenketa bati buruz.

Kode Zibilak bere 1281. artikuluan, kontratuak interpretatzeari buruz, hau xedatzen du: *“Kontratuaren hitzak argiak badira eta ez badute zalantzarik sortzen kontratugileen asmoari buruz, kontuan hartuko da kontratuko klausulen hitzez-hitzez kotasuna. Hitzak itxuraz kontratugileen ageriko asmoaren aurkakoak badira, asmo horrek lehenespena izango du hitzen gainetik.”.*

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak bere 109. artikuluan, egintzak errebokatzea eta okerrak zuzentzeari buruz hau zehazten du: *“1. Preskripzio-epea bete ez den bitartean, administrazio publikoek edozein unetan erreboka ditzakete beren egintzak, kargak ezartzen dituztenak edo inoren kalterako direnak, betiere errebokazio hori ez bada legeek onartzen ez duten lekapan edo salbuespena, eta ez bada berdintasun-printzipioaren, interes publikoaren edo ordenamendu juridikoaren aurkakoa. 2. **Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.”.***





Hori horrela, aipatutako akatsak oker material baten ondorio izan direnez, kontutan izanik Kontratazio Teknikariaren eta Kontuhartzailearen aldeko txostenak eta Udal Teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENENA.-** Onartzea Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko abenduaren 18an hartutako erabakiaren zuzenketa aurrekarietako bosgarren puntuaz azaldutako koadroaren arabera esleipena egiteko.

**BIGARRENA.-** Erabakiaren berri kontratistari jakinaraztea eta dagokion kontratua sinatzea.

**HIRUGARRENA.-** Legezko moduan Kontratatzailearen Profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

### **3. ONARTZEA ITURRIZA ELKARTEARI 2018. URTEAN DIRU-LAGUNTZA IZENDUNA EMATEKO HITZARMENA.**

“Iturriza” Tolosaldeko Helduen Elkarteak elkarrekin sekulako lana egiten du adineko pertsonen alde. Egun, 1740 bazkide ditu eta urtean zehar era guztietako aktibitateak antolatzen dituzte, adineko pertsonen denbora modu aktiboan betetzeko aukerak eskainiz eta jarrera aktiboa eta dinamikoa mantentzeko indarra eginez. Honela, lortzen dute adinez aurrera doazen pertsonen mendekotasun egoerak sorrazten dituzten sintomak atzeratzen saiatzea.

Era berean, eta are garrantzitsuagoa dena gure ikuspuntutik, lortzen dute bakardade egoeran egon daitezkeen pertsonak laguntzea bakardade horretatik atera eta beste pertsonekin harremanetan mantentzen, beren ongizatean zuzen-zuzenean eraginez.

Elkarrekin oinarritzko behar horiek asetzen egiten duen ekarpen ekonomikoa izugarria da, eta Udalak beraiekin kolaboratu izan du urte luzez, elkarrekin ematen dien diru-laguntza kopuru berdinarekin (azken urteetan 6.500 € eman zaizkie urtero).

2017ko abuztuaren 18 argitaratu zen egun indarrean dagoen diru-laguntzak emateko ordenantza aplikatuta, ordea, ezin da bermatu kopuru hori ematen jarraitzerik, eta horrek eragin zuzena izan dezake onuradunak diren adineko pertsona horien, elkarrekin iraupena kinka larrian ezarritik.



TOLOSAKO  
UDALA

Aipatutako ordenantza berrikusi eta Tolosako izaera sozialeko elkarteen errealitatera hobeto egokitzen den ordenantza berria landu bitartean, ezinbestekoa baloratzen da bermatzea Iturriza elkarteari diru-laguntza izendun hau.

Horri horrela, udal teknikariak egindako proposamena kontutan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Onartzea Iturriza Elkarteari 6.500 €-ko diru-laguntza zuzena ematea, hitzarmenean jasotzen diren klausula hauen arabera:

**Lehena: Xedea.**

*Hitzarmen honen helburua da Tolosako Udalaren eta Iturriza elkartearen arteko lankidetzarako eremu egonkor bat ezartzea Tolosako udalerraren barruan.*

**Bigarrena: Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.**

*Hitzarmen honen eremuan honako jarduera hauek sartzen dira:*

*“\*Ofrecer a las personas mayores oferta de ocio y tiempo libre para mantener el cuerpo y la mente en “buen estado”.*

*\*Prevenir y/o retrasar los síntomas de la enfermedad y dependencia, relacionados con las situaciones de aislamiento y sedentarismo.”*

**Hirugarrena: Diruz lagundutako jardueren finantziazioa.**

*Tolosako Udalak diru-laguntza baten bidez hartuko du parte hitzartutako jardueren finantzaketan. 2018ko ekitaldian, aurrekontu-baliabide horiek 6.500 eurokoak izango dira, 0500.481.01.23100 Udal Aurrekontuetako partidaren kargura; dena dela, diruz lagundutako elkarteak beste Erakunde batzuen diru-laguntzak ere jaso ditzake.*

*Entitate onuradunak aurkeztu duen diruz lagundu beharreko jardueraren aurrekontua, edo hari aurkeztu ondoren egindako aldatetarik, erreferentzia gisa erabiliko dira diru-laguntzaren zenbatekoaren azken zehaztapena egiteko, eta kasu horretan ulertuko da pertsona edo entitatearen kontura geratzen dela diruz lagundutako jarduera osorik exekutatzeko behar den finantzaketaren diferentzia, eta, bere kasuan, finantzaketa publikoa itzuli egin beharko jarduera horren kostu osoa gainditzen duen kopuruan.*

*Diru-laguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden diren beste diru-laguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeenari.*

*Gerta daitezkeen kofinantziazio-kasuek honako baldintza hauek bete beharra daukate:*



TOLOSAKO  
UDALA

a) Emandako diru-laguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.

b) Finantrazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie diru-laguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako diru-laguntzen proportzioan.

Hala ere, baldin eta Tolosako Udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako diru-laguntzaren mugaraino.

Diru-laguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.

#### **Laugarrena: Indarraldia.**

Hitzarmen honek 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak. Emandako diru-laguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio dagokion departamentuari, Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoaren arabera.

#### **Bosgarrena: Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak.**

Diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 27. artikuluko aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; hitzarmenean ezarritako epearen barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta, espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Bakar-bakarrik onartuko dira diru-laguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.

Diru-laguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, diru-laguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua diru-laguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.

Aurkeztutako eskaintzak aurkeztu behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, diru-laguntzarako eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean, espresuki justifikatu beharko dira erabili diren irizpideak, memoria baten bidez.



Gutxienez hiru hornitzaileen eskaintzak aurkeztu ez badira edo aukeratu bada, behar bezala arazoitu gabe, proposamen ekonomikorik onena ez baizik besteren bat, organo emaileak eskatu ahal izango du ondasun edo zerbitzuaren peritu-tasazio bat egin dadila, eta sortzen diren gastuak pertsona onuradunaren kontura izango dira. Kasu horretan, diru-laguntza kalkulatu da erreferentziatzat harturik bi balioetan txikiena dena: pertsona onuradunarena edo tasazioaren ondorioz ateratakoa

**Seigarrena: Diru-laguntzaren justifikazioa.**

Diru-laguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintza eta helburuak bete izanaren eta lortu izanaren justifikazioa egingo da DLOaren 30. artikuluan, DLOaren Araudian eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 28. artikuluan aurreikusita dagoenaren arabera.

Diru-laguntza justifikatu behar da «kontu erraztua» izeneko modalitatearen bidez, baldin eta diru-laguntzen zenbatekoa 15.000 eurokoa edo gutxiagokoa bada, eta kontu erraztuak jaso behar du, oro har, honako dokumentazio hau:

a) Jarduera-memoria bat, diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko, non adieraziko diren zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren.

b) Gastuen eta inbertsioen zerrenda bat, ataletan banatuta, eta identifikatuta dituela hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa eta jaulkipen- eta ordainketa-datak, Tolosako Udalak emandako ereduaren moduan justifikatuko dena. Diru-laguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen denean, zein desbideratze izan diren adieraziko da.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zehaztapen bat, non zenbatekoa eta jatorria adieraziko diren.

d) Aplikatu ez diren soberakinak eta horietatik ateratzen diren interesak itzuli direla dioen ordainketa gutuna.

Organo emaileak diru-laguntza egoki aplikatu ote den egiaztatuko du horren gaineko arrazoizko ziurtasuna ematen duen ordainagirien lagin bat begiratuta. Dagokion deialdian, laguntza emateko-erabakian edo hitzar menean zehaztuko da zein den egiaztatu beharreko elementu-kopurua, ondoren adierazten diren mugak errespetatuta:

a) Emandako diru-laguntzaren zenbatekoaren 100eko 25 gainditzen duten egiaztagiri guztiak begiratuko dira.

b) Gainerako egiaztagirietatik begiratuko da elementuen lagin bat, zeina gutxienez portzentaje hau den populazio osoaren elementu-kopuruarekiko:

- Egiaztagiriak hamar edo hamar baino gutxiago badira: 100eko 100.

- Egiaztagiriak hamar baino gehiago eta hogeit hamar edo hogeit hamar baino gutxiago badira: 100eko 70.

- Egiaztagiriak hogeit hamar baino gehiago eta berrogeit hamar edo berrogeit hamar baino gutxiago badira: 100eko 40.

- Egiaztagiriak berrogeit hamar baino gehiago eta ehun edo ehun baino gutxiago badira: 100eko 30.

- Egiaztagiriak ehun baino gehiago badira: 100eko 20.



TOLOSAKO  
UDALA

**Zazpigarrena: Diru-laguntzen justifikazioa aurkezteko epea.**

*Diru-laguntzen justifikazioa aurkezteko epea izango da hilabete bat, jarduera gauzatzeko epea bukatzen denetik kontatuta; 2019ko urtarrilaren 31ra arte.*

**Zortzigarrena: Ordaintzeko prozedura.**

*Diru-laguntzaren ordainketa egingo da, oro har, diru-laguntzaren onuradunak justifikazioa aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren, beti ere jarduera dela-eta eskumenak dituen departamentuak aldeko txostena egin ondoren.*

*Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da: lehena, diru-laguntzaren % 75, organo eskudunaren erabakiaren jakinarazpenarekin batera eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak aurkeztutakoan; eta gainontzeko % 25a, egindako gastua justifikatzen duen kontua aurkeztutakoan, beti ere hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen.*

*Bete beharreko baldintza izango da Tolosako Udalak aurretik emandako diru-laguntzen justifikazio-dokumentazio osoa aurkeztu izana, beste diru-laguntza berri batean parte hartu ahal izateko.*

*Ordainketak Diru-laguntzen Datu Base Nazionalari jakinarazi behar zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.*

**Bederatzigarrena: Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.**

*Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak hartu beharko ditu, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela bere forman, dela bere iraupenean, nola baita, esaterako, Tolosako Udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan, edo, bestela, hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzia berdinarekin.*

*Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak konpromisoa hartzen du Tolosako Udalak beharrezkotzat eta interesgarritzat jotako gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta jolas-ekitaldietara joan eta bertan parte hartzeko.*

**Hamargarrena: Euskararen erabilpena.**

*Ahozko informazioa (megafonia...) eta idatzizkoa (kartelak, oharrak...) euskaraz edo elebitan egin behar dira, eta azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda, Tolosako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantzak xedatzen duen bezala. Euskaraz egingo dira ekintzaren izaerak edo hartzaileen berezitasunek hala eskatzen badute.*

**Hamaikagarrena: Genero berdintasuna.**

*Ez da inoiz hizkuntza edo irudi sexistarik erabili behar, hala xedatzen baitute lege-arau hauek: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakume eta gizonen arteko berdintasun eragingarriakoa; 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa; eta Emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunerako udal ordenantza.*



TOLOSAKO  
UDALA

**Hamabigarrena: Jarraipen batzordea.**

Hitzarmen honen testuinguruan, bi aldeek adostu dute Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde bat eratzea. Batzorde horren funtzioak hauek izango dira: hitzarmena ongi betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen zalantzak argiturik; diru-laguntza jaso duten jarduera guztien memoria eta ustiapen-kontua adostea; hitzarmena betetzen ote den eta zein neurritan betetzen den aztertzea; eta bi aldeen interesekoak izan daitezkeen lankidetzak bide berriak proposatzea.

Tolosako Udalak egoki irizten dituen ikuskapen eta ziurtapenak egiteko ahalmena du, diruz lagundutako elkarteak hartutako konpromisoak betetzen dituela egiaztatzeko helburuarekin.

**Hamahirugarrena: Iraungitzea.**

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

**Hamalauugarrena: Lan- eta zerga-legeria.**

Diruz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienean.

**Hamabosgarrena: Izaera administratiboa.**

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta, bere kasuan, aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

**Hamaseigarrena: Legeria osagarria.**

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailearen 21ekoa; eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorra.

**Hamazazpigarrena: Izaera pertsonaleko datuak.**

Izaera pertsonaleko datuak arautzen duen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromisoa hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa beteko dutela, aplikatu daitezkeen guztian.

**Hemezortzigarrena:** Entitate onuradunak espresuki ematen dio baimena Tolosako Udalari, edozein momentutan eta edozein Administrazio edo Erakunde Publikotatik zuzenean eskura ditzan hitzarmen honen bitartez eskatutako diru-laguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak.

**Hemeretzigarrena: Gardentasun ataria.**

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian eta Udaletxeko iragarki taulan.

**BIGARRENA.-** Kantitate horren %75 ordaintzea Iturriza elkarteari, hau da, 4.875 €, eta urte amaieran, emandako laguntza justifikatzeko kontuak aurkezten dituztenean ematea



TOLOSAKO  
UDALA

gainerako %25a. Diru-laguntza hori 2018ko udal aurrekontuaren 500.481.01.23100 partidaren kargura finantzatuko da.

**HIRUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Gizarte Zerbitzuen eta Osasuna departamentuari.

#### **4. ONARTZEA HARIZPE ELKARTEARI 2018. URTEAN DIRU-LAGUNTZA IZENDUNA EMATEKO HITZARMENA.**

Asociación "Harizpe" de jubilados y pensionistas izeneko elkarteak sekulako lana egiten du adineko pertsonen alde. Egun, 1.500 bazkide inguru ditu eta urtean zehar era guztietako aktibitateak antolatzen dituzte, adineko pertsonen denbora modu aktiboan betetzeko aukerak eskainiz eta jarrera aktiboa eta dinamikoa mantentzeko indarra eginez. Honela, lortzen dute adinez aurrera doazen pertsonen mendekotasun egoerak sorrazten dituzten adierazleak atzeratzen saiatzea.

Era berean, eta are garrantzitsuagoa dena gure ikuspuntutik, lortzen dute bakardade egoeran egon daitezkeen pertsonen laguntzea bakardade horretatik atera eta beste pertsonekin harremanetan mantentzea, beren ongizatean zuzen-zuzenean eraginez.

Elkarteak oinarrizko behar horiek asetzen egiten duen ekarpen ekonomikoa izugarria da, eta udalak beraiekin kolaboratu izan du urte luzez, elkarteei ematen dien diru-laguntza kopuru berdintsuarekin (azken urteetan 6.100 € inguru eman zaizkie urtero).

2017ko abuztuaren 18 argitaratu zen egun indarrean dagoen diru-laguntzak emateko ordenantza aplikatuta, ordea, ezin da bermatu kopuru hori ematen jarraitzerik, eta horrek eragin zuzena izan dezake onuradunak diren adineko pertsona horiengan, elkartearen iraupena kinka larrian ezarriz

Aipatutako ordenantza berrikusi eta Tolosako izaera sozialeko elkarteen errealitatera hobeto egokitzen den ordenantza berria landu bitartean, ezinbestekoa baloratzen da bermatzea HARIZPE elkarteari diru-laguntza izendun hau.

Horri horrela, udal teknikariak egindako proposamena kontutan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Onartzea Harizpe Elkarteari 6.100 €-ko diru-laguntza zuzena ematea, hitzarmenean jasotzen diren klausula hauen arabera:

***Lehena: Xedea.***

*Hitzarmen honen helburua da Tolosako Udalaren eta Harizpe elkartearen arteko lankidetzarako eremu egonkor bat ezartzea Tolosako udalerraren barruan.*



**Bigarrena: Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.**

Hitzarmen honen eremuan honako jarduera hauek sartzen dira:

- \*\*Reunir y ofrecer actividades de ocio a las personas pensionistas y jubiladas de Tolosa.*
- \*Fomentar la unión , el encuentro y la convivencia, evitando situaciones de aislamiento social.*
- \*Promover actividades de ocio que sirvan para motivar hacia la participación, estructurar una actividad periódica, hábitos saludables, rutinas en la vida diaria , y en definitiva, prevenir los síntomas de las enfermedades y los signos de dependencia."*

**Hirugarrena: Diruz lagundutako jardueren finantziazioa.**

Tolosako Udalak diru-laguntza baten bidez hartuko du parte hitzartutako jardueren finantzaketan. 2018ko ekitaldian, aurrekontu-baliabide horiek 6.100 eurokoak izango dira, 0500.481.01.23100 Udal Aurrekontuetako partidaren kargura; dena dela, diruz lagundutako elkarteak beste Erakunde batzuen diru-laguntzak ere jaso ditzake.

Entitate onuradunak aurkeztu duen diruz lagundu beharreko jardueraren aurrekontua, edo hari aurkeztu ondoren egindako aldatetarako, erreferentzia gisa erabiliko dira diru-laguntzaren zenbatekoaren azken zehaztapena egiteko, eta kasu horretan ulertuko da pertsona edo entitatearen kontura geratzen dela diruz lagundutako jarduera osorik exekutatzeko behar den finantzaketaren diferentzia, eta, bere kasuan, finantzaketa publikoa itzuli egin beharko jarduera horren kostu osoa gainditzen duen kopuruan.

Diru-laguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden diren beste diru-laguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeenari.

Gerta daitezkeen kofinantziazio-kasuek honako baldintza hauek bete beharra daukate:

a) Emandako diru-laguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.

b) Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie diru-laguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako diru-laguntzen proportzioan.

Hala ere, baldin eta Tolosako Udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako diru-laguntzaren mugaraino.

Diru-laguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.





**Laugarrena: Indarraldia.**

Hitzarmen honek 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak. Emandako diru-laguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio dagokion departamentuari, Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorrek xedatutakoaren arabera.

**Bosgarrena: Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak.**

Diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 27. artikuluko aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; hitzarmenean ezarritako epearen barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta, espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Bakar-bakarrik onartuko dira diru-laguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.

Diru-laguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, diru-laguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua diru-laguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.

Aurkeztutako eskaintzak aurkeztu behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, diru-laguntzarako eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, espresuki justifikatu beharko dira erabili diren irizpideak, memoria baten bidez.

Gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak aurkeztu ez badira edo aukeratu bada, behar bezala arrazoitu gabe, proposamen ekonomikorik onena ez baizik besteren bat, organo emaileak eskatu ahal izango du ondasun edo zerbitzuaren peritu-tasazio bat egin dadila, eta sortzen diren gastuak pertsona onuradunaren kontura izango dira. Kasu horretan, diru-laguntza kalkulatu da erreferentziazat harturik bi balioetan txikiena dena: pertsona onuradunarena edo tasazioaren ondorioz ateratakoa

**Seigarrena: Diru-laguntzaren justifikazioa.**

Diru-laguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintza eta helburuak bete izanaren eta lortu izanaren justifikazioa egingo da DLOaren 30. artikuluan, DLOaren Araudian eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 28. artikuluan aurreikusita dagoenaren arabera.

Diru-laguntza justifikatu behar da «kontu erraztua» izeneko modalitatearen bidez, baldin eta diru-laguntzen zenbatekoa 15.000 eurokoa edo gutxiagokoa bada, eta kontu erraztuak jaso behar du, oro har, honako dokumentazio hau:

a) Jarduera-memoria bat, diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko, non adieraziko diren zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren.



b) Gastuen eta inbertsioen zerrenda bat, ataletan banatuta, eta identifikatuta dituela hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa eta jaulkipen- eta ordainketa-datak, Tolosako Udalak emandako ereduaren moduan justifikatuko dena. Diru-laguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen denean, zein desbideratze izan diren adieraziko da.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zehaztapen bat, non zenbatekoa eta jatorria adieraziko diren.

d) Aplikatu ez diren soberakinak eta horietatik ateratzen diren interesak itzuli direla dioen ordainketa gutuna.

Organo emaileak diru-laguntza egoki aplikatu ote den egiaztatuko du horren gaineko arrazoizko ziurtasuna ematen duen ordainagirien lagin bat begiratuta. Dagokion deialdian, laguntza emateko-erabakian edo hitzar menean zehaztuko da zein den egiaztatu beharreko elementu-kopurua, ondoren adierazten diren mugak errespetatuta:

a) Emandako diru-laguntzaren zenbatekoaren 100eko 25 gainditzen duten egiaztagiri guztiak begiratuko dira.

b) Gainerako egiaztagirietatik begiratuko da elementuen lagin bat, zeina gutxienez portzentaje hau den populazio osoaren elementu-kopuruarekiko:

- Egiaztagiriak hamar edo hamar baino gutxiago badira: 100eko 100.
- Egiaztagiriak hamar baino gehiago eta hogeit hamar edo hogeit hamar baino gutxiago badira: 100eko 70.
- Egiaztagiriak hogeit hamar baino gehiago eta berrogeit hamar edo berrogeit hamar baino gutxiago badira: 100eko 40.
- Egiaztagiriak berrogeit hamar baino gehiago eta ehun edo ehun baino gutxiago badira: 100eko 30.
- Egiaztagiriak ehun baino gehiago badira: 100eko 20.

**Zazpigarrena: Diru-laguntzen justifikazioa aurkezteko epea.**

Diru-laguntzen justifikazioa aurkezteko epea izango da hilabete bat, jarduera gauzatzeko epea bukatzen denetik kontatuta: 2019ko urtarrilaren 31.

**Zortzigarrena: Ordaintzeko prozedura.**

Diru-laguntzaren ordainketa egingo da, oro har, diru-laguntzaren onuradunak justifikazioa aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren, beti ere jarduera dela-eta eskumenak dituen departamentuak aldeko txostena egin ondoren.

Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da: lehena, diru-laguntzaren % 75, organo eskudunaren erabakiaren jakinarazpenarekin batera eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak aurkeztutakoan; eta gainontzeko % 25a, egindako gastua justifikatzen duen kontua aurkeztutakoan, beti ere hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen.

Bete beharreko baldintza izango da Tolosako Udalak aurretik emandako diru-laguntzen justifikazio-dokumentazio osoa aurkeztu izana, beste diru-laguntza berri batean parte hartu ahal izateko.



TOLOSAKO  
UDALA

*Ordainketak Diru-laguntzen Datu Base Nazionalari jakinarazi behar zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.*

**Bederatzigarrena: Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.**

*Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak hartu beharko ditu, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baita, esaterako, Tolosako Udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan, edo, bestela, hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzia berdinarekin.*

*Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak konpromisoa hartzen du Tolosako Udalak beharrezkotzat eta interesgarriztat jotako gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta jolas-ekitaldietara joan eta bertan parte hartzeko.*

**Hamargarrena: Euskararen erabilpena.**

*Ahozko informazioa (megafonia...) eta idatzizkoa (kartelak, oharra...) euskaraz edo elebitan egin behar dira, eta azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda, Tolosako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantzak xedatzen duen bezala. Euskaraz egingo dira ekintzaren izaerak edo hartzaileen berezitasunek hala eskatzen badute.*

**Hamaikagarrena: Genero berdintasuna.**

*Ez da inoiz hizkuntza edo irudi sexistarik erabili behar, hala xedatzen baitute lege-arau hauek: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakume eta gizonen arteko berdintasun eragingarriakoa; 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa; eta Emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunerako udal ordenantza.*

**Hamabigarrena: Jarraipen batzordea.**

*Hitzarmen honen testuinguruan, bi aldeek adostu dute Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde bat eratzea. Batzorde horren funtzioak hauek izango dira: hitzarmena ongi betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen zalantzak argiturik; diru-laguntza jaso duten jardura guztien memoria eta ustiapen-kontua adostea; hitzarmena betetzen ote den eta zein neurritan betetzen den aztertzea; eta bi aldeen interesekoak izan daitezkeen lankidetzak bide berriak proposatzea.*

*Tolosako Udalak egoki irizten dituen ikuskapen eta ziurtapenak egiteko ahalmena du, diruz lagundutako elkarteak hartutako konpromisoak betetzen dituela egiaztatzeko helburuarekin.*

**Hamahirugarrena: Iraungitzea.**

*Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.*

**Hamalauugarrena: Lan- eta zerga-legeria.**

*Diruz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jardura gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienean.*



TOLOSAKO  
UDALA

**Hamabosgarrena: Izaera administratiboa.**

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta, bere kasuan, aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

**Hamaseigarrena: Legeria osagarria.**

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorra.

**Hamazazpigarrena: Izaera pertsonaleko datuak.**

Izaera pertsonaleko datuak arautzen duen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromisoa hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa beteko dutela, aplikatu daitezkeen guztian.

**Hemezortzigarrena:** Entitate onuradunak espresuki ematen dio baimena Tolosako Udalari, edozein momentutan eta edozein Administrazio edo Erakunde Publikotatik zuzenean eskura ditzan hitzarmen honen bitartez eskatutako diru-laguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak.

**Hemeretzigarrena: Gardentasun ataria.**

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian eta Udaletxeko iragarki taulan.

**BIGARRENA.-** Kantitate horren %75 ordaintzea Harizpe elkarteari, hau da, 4.575 €, eta urte amaieran, emandako laguntza justifikatzeko kontuak aurkezten dituztenean ematea gainerako %25a. Diru-laguntza hori 2018ko udal aurrekontuaren 500.481.01.23100 partidaren kargura finantzatuko da.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Gizarte Zerbitzuen eta Osasuna departamentuari.

**5. ONARTZEA DIRU-LAGUNTZA IZENDUN HAU: HERRIKIDE IKASTETXEAREKIN HITZARMENA, "ETORKINENTZAT EUSKARAZKO ERREFORTZU-ESKOLAK" PROIEKTUA AURRERA ERAMATEKO.**

Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrak 2015eko apirilaren 24an onartu zuen Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2015-2019 epealdirako. Plan horrek Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren onespena du.



TOLOSAKO  
UDALA

Dokumentu horretan zehazten dira, hain zuzen ere, Tolosako Udalak euskararen erabilera normalizatzeko prozesua bideratzeko helburuak, irizpideak eta ekintzak. Besteak beste, Tolosako ikastetxeetan esku hartzeko ekimenak aipatzen dira.

Tolosako Udalarentzat hizkuntzaren erabileraren ikuspegitik garrantzia handiko sektorea da hezkuntza, Tolosan duen presentzia eta pisuarengatik. Izan ere, hizkuntzari dagokionez, agertoki nagusietako bat da.

Bestetik, beharrezkotzat jotzen du Tolosako Ikastetxeetan, euskarari dagokionez, ikasleen hizkuntza gaitasunean eta ahazkotasunean eragitea eta horretarako, ikasle etorkinentzat euskara errefortzuak ematea, hizkuntzak berak bai eskolan eta baita herrian ere integratzeko aukera emango dielako.

Gauzak horrela izanda, Tolosako Udaleko Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordearentzat Herrikide Ikastetxea gakoetako bat da euskararen normalizazio prozesuari bultzada handi bat emateko.

Hala, Tolosako Udaleko Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak ontzat jotzen zuen diru laguntza bat izendatzea Herrikide Ikastetxearentzat, gero bi erakundeen artean hitzarmena egin ahal izateko.

Euskara Zerbitzuaren 2018ko udal aurrekontuko diru-laguntzen 0900 481.01 33510 partidako 7.110 euro-diru laguntza gisara dago izendatua Herrikide Ikastetxearentzat, "etorkinentzat euskarazko errefortzu-eskolak" proiektua aurrera eraman dezan Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean.

Horri horrela, udal teknikariak egindako proposamena kontutan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Onartzea diru laguntza izenduna – Herrikide Ikastetxearekin hitzarmena, "etorkinentzat euskarazko errefortzu-eskolak" proiektua aurrera eramateko, klausula hauen arabera:

**Lehena: Xedea.**

*Hitzarmen honen helburua da Tolosako Udalaren eta Herrikideren arteko lankidetzarako eremu egonkor bat ezartzea Tolosako udalerraren barruan.*

**Bigarrena: Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.**

*Diruz lagunduko diren jarduerak hauek dira:*

- *Euskarazko errefortzuko eskola zerbitzua ematea ikasleek heziketa prozesuan modu egokian segitzeko 2018-2019 ikasturtean.*

**Hirugarrena: Diruz lagundutako jardueren finantziazioa.**

*Tolosako Udalak diru-laguntza baten bidez hartuko du parte hitzartutako jardueren finantzaketan. 2018ko ekitaldian, aurrekontu-baliabide horiek 7.110 eurokoak izango dira, 0900481.01.33510*



TOLOSAKO  
UDALA

*Udal Aurrekontuetako partidaren kargura; dena dela, diruz lagundutako elkarteak beste Erakunde batzuen diru-laguntzak ere jaso ditzake.*

*Entitate onuradunak aurkeztu duen diruz lagundu beharreko jardueraren aurrekontua, edo hari aurkeztu ondoren egindako aldaketak, erreferentzia gisa erabiliko dira diru-laguntzaren zenbatekoaren azken zehaztapena egiteko, eta kasu horretan ulertuko da pertsona edo entitatearen kontura geratzen dela diruz lagundutako jarduera osorik exekutatzeko behar den finantzaketaren diferentzia, eta, bere kasuan, finantzaketa publikoa itzuli egin beharko da jarduera horren kostu osoa gainditzeko duen kopuruan.*

*Diru-laguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden beste diru-laguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeenari.*

*Gerta daitezkeen kofinantziazio-kasuek honako baldintza hauek bete beharra daukate:*

*a) Emandako diru-laguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.*

*Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.*

*b) Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie diru-laguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako diru-laguntzen proportzioan.*

*Hala ere, baldin eta Tolosako Udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako diru-laguntzaren mugaraino.*

*Diru-laguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.*

#### **Laugarrena: Indarraldia.**

*Hitzarmen honek 2018ko irailaren 1etik 2019ko ekainaren 30era arte izango ditu ondorioak. Emandako diru-laguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio dagokion departamentuari, Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorra xedatutakoaren arabera.*

#### **Bosgarrena: Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak.**

*Diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 27. artikuluko aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; hitzarmenean ezarritako epearen*



TOLOSAKO  
UDALA

*barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta, espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.*

*Bakar-bakarrik onartuko dira diru-laguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.*

*Diru-laguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, diru-laguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua diru-laguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.*

*Aurkeztutako eskaintzak erantsi behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, diru-laguntzarako eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean, espresuki justifikatu beharko dira erabili diren irizpideak, memoria baten bidez.*

*Gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak aurkeztu ez badira edo aukeratu bada, behar bezala arrazoitu gabe, proposamen ekonomikorik onena ez baizik besteren bat, organo emaileak eskatu ahal izango du ondasun edo zerbitzuaren peritu-tasazio bat egin dadila, eta sortzen diren gastuak pertsona onuradunaren kontura izango dira. Kasu horretan, diru-laguntza kalkulatu da erreferentziatzat harturik bi balioetan txikiena dena: pertsona onuradunarena edo tasazioaren ondorioz ateratakoa.*

#### **Seigarrena: Diru-laguntzaren justifikazioa.**

*Diru-laguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintzak eta helburuak bete izanaren eta lortu izanaren justifikazioa egin behar da DLOaren 30. artikuluan, DLOaren Araudian eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren 28. artikuluan aurreikusita dagoenaren arabera.*

*Diru-laguntza justifikatu behar da «justifikatzeko kontua ordainagiriak aurkeztuta» izeneko modalitatearen bidez, oro har, honako dokumentazio hau duela:*

*a) Jarduera-memoria bat, diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko. Memoria horretan adierazi behar da zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren, eta, ahal den neurrian, datu guztiak sexuen arabera banatuta aurkeztuko dira.*

*b) Egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria bat, non hauek jasoko diren:*

- Gastuen eta inbertsioen zerrenda bat, ataletan banatuta, eta identifikatuta dituela hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa eta jaulkipen- eta ordainketa-datak.*
- Fakturak eta merkataritzako trafiko juridikorako balioa edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak. Agiri horiei erantsiko zaie egindako ordainketak egiaztatzen dituen dokumentazioa.*
- Berreskuratu edo konpentsatu ezin daitezkeen zeharkako zergak justifikazioaren osagaiak badira, pertsona onuradunak aurkeztu beharko du erantzukizunpeko aitortzen bat, zehaztu ahal izateko frogagiritan ageri diren zergetatik zein hartu litezkeen diruz lagundutako gastutzat.*
- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zerrenda zehaztu bat, zenbatekoa eta jatorria adierazita.*



TOLOSAKO  
UDALA

**Zazpigarrena: Diru-laguntzen justifikazioa aurkezteko epea.**

*Diru-laguntzen justifikazioa aurkezteko epea izango da hilabete bat, jarduera gauzatzeko epea bukatzen denetik kontatuta.*

**Zortzigarrena: Ordaintzeko prozedura.**

*Diru-laguntzaren ordainketa egin behar da, oro har, diru-laguntzaren onuradunak justifikazioa aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren, beti ere jarduera dela-eta eskumenak dituen departamentuak aldeko txostena egin ondoren.*

*Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da: lehena, diru-laguntzatik 2.844 eurokoa organo eskudunaren erabakiaren jakinarazpenarekin batera eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak aurkeztutakoan; eta gainontzekoa, 4.266, egindako gastua justifikatzen duen kontua aurkeztutakoan, beti ere hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen.*

*Bete beharreko baldintza izango da Tolosako Udalak aurretik emandako diru-laguntzen justifikazio-dokumentazio osoa aurkeztu izana, beste diru-laguntza berri batean parte hartu ahal izateko.*

*Ordainketak Diru-laguntzen Datu Base Nazionalari jakinaraziko zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.*

**Bederatzigarrena: Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.**

*Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak hartu beharko ditu, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baita, esaterako, Tolosako Udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan, edo, bestela, hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzia berdinarekin.*

*Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak konpromisoa hartzen du Tolosako Udalak beharrezkotzat eta interesgarritzat jotako gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta jolas-ekitaldietara joan eta bertan parte hartzeko.*

**Hamargarrena: Euskararen erabilpena.**

*Ahozko informazioa (megafonia...) eta idatzizkoa (kartelak, oharrak...) euskaraz edo elebitan egin behar dira, eta azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda, Tolosako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantzak xedatzen duen bezala. Euskaraz egingo dira ekintzaren izaerak edo hartzaileen berezitasunek hala eskatzen badute.*

**Hamaikagarrena: Genero berdintasuna.**

*Ez da inoiz hizkuntza edo irudi sexistarik erabili behar, hala xedatzen baitute lege-arau hauek: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakume eta gizonen arteko berdintasun eragingarriakoa; 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa; eta Emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunerako udal ordenantza.*





**Hamabigarrena: Jarraipen Batzordea.**

Hitzarmen honen testuinguruan, bi aldeek adostu dute Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde bat eratzea. Batzorde horren funtzioak hauek izango dira: hitzarmena ongi betetzen dela zaintzea, zor daitezkeen zalantzak argiturik; diru-laguntza jaso duten jarduera guztien memoria eta ustiapen-kontua adostea; hitzarmena betetzen ote den eta zein neurritan betetzen den aztertzea; eta bi aldeen interesekoak izan daitezkeen lankidetzak bide berriak proposatzea.

Tolosako Udalak ahalmena du egoki irizten dituen ikuskapen eta ziurtapenak egiteko, diruz lagundutako elkarteak hartutako konpromisoak betetzen dituela egiaztatzeko helburuarekin.

**Hamahirugarrena: Iraungitzea.**

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

**Hamalagarrena: lan- eta zerga-legeria.**

Diruz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienean.

**Hamabosgarrena: Izaera administratiboa.**

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta, bere kasuan, aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

**Hamaseigarrena: Legeria osagarria.**

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorra.

**Hamazazpigarrena: Izaera pertsonaleko datuak.**

Izaera pertsonaleko datuak arautzen dituen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromisoa hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa beteko dutela, aplikatu daitezkeen guztian.

**Hemezortzigarrena:** Entitate onuradunak espresuki ematen dio baimena Tolosako Udalari, edozein momentutan eta edozein Administrazio edo Erakunde Publikotatik zuzenean eskura ditzan hitzarmen honen bitartez eskatutako diru-laguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak.

**Hemeretzigarrena: Gardentasun ataria.**

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian eta Udaletxeko iragarki taulan.

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Euskara eta Hezkuntza departamentuari.



**6. ONARTZEA TOLOSAKO UDALERRIAN GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARLOAN  
ETA ARLO PSIKOSOSIALEAN ESKU-HARTZEKO ZERBITZU-KONTRATUA  
ARAUTUKO DUEN KONTRATUAREN ESLEIPENAREN KONTRATAZIO  
JARDUNBIDEA, ETA HASIERA EMATEA.**

**1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK**

kontratuaren xedea:	Tolosako udalerrian gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzua
Unitate sustatzailea:	Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna
Espedientea:	2018SABI0004

Txosten hau ematen da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren arabera, non Udal Idazkariari ematen zaion kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

**2.- AURREKARIAK**

Lehena.- Tolosako Udaleko Alkate-Udalburuak 2018ko irailaren 4an egindako probidentziaren bitartez, aipatutako xedea duen kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, Administrazio klausula partikularren plegua, baldintza teknikoen plegua, baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena, kontratua justifikatzeko memoria eta Idazkaritza eta Kontuhartzaitzaren txostenak eskatzen ziren jardunbidea burutu ahal izateko.

Bigarrena.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak (SPKL hemendik aurrera) arautzen dituenak, bere V. Kapitulan (308. artikulutik aurrera), Zerbitzu kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu; horien artean, edukia eta limiteak, prezioa kalkulatzeko era eta kontratistaren erantzukizuna beste batzuen artean.

Hirugarrena.- 2018ko urriaren 10ean Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren Departamentu buruak egindako txostenean, kontratuaren xehetasunak aipatzen zituen: kontratuaren xedea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, kontratua gauzatzeko epea eta egin beharreko lanak beste batzuen artean.

Laugarrena.- Halaber, aipatutako txostenean, SPKLaren 28. artikuluan xedatutakoa betetzearren, kontratuaren egokitasuna eta beharra arrazoitzen ditu; gainera baliabide propio nahikoak ez-izatea ere justifikatzen du eta horretan oinarrituta, lizitazioa egitearen beharra justifikatzen du.

Aipatutako legeak hau zehazten du bere 28. artikuluan:



*“Artículo 28. Necesidad e idoneidad del contrato y eficiencia en la contratación.*

*1. Las entidades del sector público no podrán celebrar otros contratos que aquellos que sean necesarios para el cumplimiento y realización de sus fines institucionales. A tal efecto, la naturaleza y extensión de las necesidades que pretenden cubrirse mediante el contrato proyectado, así como la idoneidad de su objeto y contenido para satisfacerlas, cuando se adjudique por un procedimiento abierto, restringido o negociado sin publicidad, deben ser determinadas con precisión, dejando constancia de ello en la documentación preparatoria, antes de iniciar el procedimiento encaminado a su adjudicación.”.*

### **3.- KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA, KONTRATUAREN IZAERA ETA KAUDIMENA**

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, bere 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espeditentea osatu behar da. Espeditentea, aipatutako Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da eta 117 artikulua xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espeditentea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatu da:

- Espeditenteari hasiera emateko Alkatezaren Probidentzia.
- Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren Sailaren buruak egindako kontratazio-proposamena.
- Baliabide propioak ez izatearen justifikazioa jasotzen duen txostena.
- Baldintza teknikoen plegua.
- Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria.

Halaber, espeditentea osatu beharko da Kontuhartzailearen txostenarekin.

Kontratu honek, administrazio-izaera du 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 25.1 artikulua a) atalean xedaturikoarekin bat; zerbitzu kontratua hain zuzen ere, aipatutako Legearen 17. artikuluan xedaturikoaren arabera, non hau zehazten du: *“Son contratos de servicios aquellos cuyo objeto son prestaciones de hacer consistentes en el desarrollo de una actividad o dirigidas a la obtención de un resultado distinto de una obra o suministro, incluyendo aquellos en que el adjudicatario se obligue a ejecutar el servicio de forma sucesiva y por precio unitario. No podrán ser objeto de estos contratos los servicios que impliquen ejercicio de la autoridad inherente a los poderes públicos”.*

Bestalde, zerbitzu kontratu honetan ondokoa kontuan izan behar da:

Lehena.- Kontratu honetan aurreikusitako balio zenbatetsia, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 101.1.a). artikulua xedaturikoa aintzat hartuta, **433.620,00 eurokoa** dela. Kontratazio honetan ez da loteetan banaketarik aurreikusi, eta hori justifikatu da espeditentean.

Hori horrela, nahiz eta zerbitzu kontratuak 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), bere 19 artikulua arabera, araudi



armonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan, kasu honetan, 22. artikularen c) idatz-zatian xedatutakoa izan behar dugu kontutan: *“1. Están sujetos a regulación armonizada los contratos de servicios cuyo valor estimado sea igual o superior a las siguientes cantidades: ....*

*c) 750.000 euros, cuando se trate de contratos que tengan por objeto los servicios sociales y otros servicios específicos enumerados en el anexo IV.”.*

Beraz SPKLren IV. Eranskina aintzat harturik eta aipatutako xedea duen kontratazio jardunbidearen CPVa 85300000-2 denez eta beraz, Eranskinean aurreikusitako 85000000-9 eta 85323000-9 kodeen artean dagoenez, “Servicios sociales y de salud y servicios conexos” taldean sartu ahal izango genuke. Ondorioz, atalasea 221.000,00 euro izatetik, 750.000,00 euro izatera pasatzen da eta beraz, **ez da arau armonizatupeko kontratua.**

Halaber, **kontratazioari buruzko errekurtsio berezia tartekatu ahal izango da**, aipatutako Legearen 44.1 artikularen a) idatz-zatiak xedaturikoaren arabera, balio zenbatetsiak 100.000,00 euroko kopurua gainditzen duelako.

Bigarrena.- Bestalde, Baldintza Administrazioen Pleguaren I tituluaren IV Kapituluaren eta honen I. Eranskinaren 11. atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKL.k bere 86, 87, eta 90. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Halaber, eta ordainagirien ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa: *“La Administración tendrá la obligación de abonar el precio dentro de los treinta días siguientes a la fecha de aprobación de las certificaciones de obra o de los documentos que acrediten la conformidad con lo dispuesto en el contrato de los bienes entregados o servicios prestados, sin perjuicio de lo establecido en el apartado 4 del artículo 210, y si se demorase, deberá abonar al contratista, a partir del cumplimiento de dicho plazo de treinta días los intereses de demora y la indemnización por los costes de cobro en los términos previstos en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales. Para que haya lugar al inicio del cómputo de plazo para el devengo de intereses, el contratista deberá haber cumplido la obligación de presentar la factura ante el registro administrativo correspondiente en los términos establecidos en la normativa vigente sobre factura electrónica, en tiempo y forma, en el plazo de treinta días desde la fecha de entrega efectiva de las mercancías o la prestación del servicio.”.*

#### **4.- ESPEDIENTE MOTA**

SPKLak bere 116, 119 eta 120 artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditenteak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen, arruntak edo ohikoak, presazkoak eta larrialdietakoak. Presazkoak, 119. artikuluan arautzen dira honakoaren arabera: *“geroraezinak edo, herri-onuraren arrazoiengatik, lehenbailehen esleitu beharrekoak diren kontratuen espeditenteak presaz tramitatu ahal izango dira. Horretarako,*



*espedienteak presa adierazpena eduki beharko du, kontratazio-organoak eginda eta behar bezala arrazoituta*". Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: "*hondamen gertaeretan, arrisku handia eragiten duten egoeretan edota nazio-defentsari eragiten dien beharrei erantzuteko, Administrazioak berehala erantzun behar izaten duen kasuetan...*".

Kasu honetan, ez da Legearen 119 eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik beraz, kontratazio-espediente hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorritz.

#### **5.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK**

Zerbitzu kontratua gauzatzeko epea **bi urtekoa izango da eta beste urtebetez luzatzeko aukera** izango da.

**Oinarrizko lizitazio aurrekontua ondoko hau izango da: 273.312,00 euro, horietatik 262.800,00 euro printzipala eta 10.512,000 euro BEZari (%4) dagozkionak. Lizitazio prezio orokorra: 136.656,00 euro, horietatik 131.400,00 euro printzipala eta 5.256,00 euro BEZari (%4) dagozkionak. Halaber, kontratuaren balio zenbatetsia 433.620,00 eurokoa da.**

Hauek dira kontratuaren epe osoaren balio zenbatetsiak eta ordaindu beharreko kuotak (BEZa barne):

Anualidad	Valor estimado	Cuota anual (IVA incluido)
2019	131.400,00 €	136.656,00 €
2020	131.400,00 €	136.656,00 €
2021	131.400,00 €	136.656,00 €
10%	39.420,00 €	
<b>Total</b>	<b>433.620,00 €</b>	<b>409.968,00 €</b>

Bestalde, garrantzitsua da aipatzea, kontratuaren xede diren lanak, 0500.227.04.231.00 udal aurrekontu-partidaren kargura finantzatzeko direla.

Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoari aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partidaren kargura.



## **6.- ESLEIPENA EGITEKO JARDUNBIDEA ETA MODUA**

Proposatutako kontratazioari SPK Lan jasotako esleipenerako jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: *“La adjudicación se realizará, ordinariamente, utilizando una pluralidad de criterios de adjudicación basados en el principio de mejor relación calidad-precio, y utilizando el procedimiento abierto o el procedimiento restringido...”*.

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espediente honetan **jardunbide irekia** erabiltzea, gardentasuna, publizitatea, eraginkortasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala proposamen tekniko eta batik bat ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzi delako, lehia printzipioan oinarrituta. Hori betiere, SPKLaren 156, 157, 158 eta 159 artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki egin beharko da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 20. klausulan eta bere I Eranskinaren 10 eta 19 idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLaren 145. eta 159. artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura dutenak hain zuzen ere. Kasu honetan, balio-judizioetan oinarritutako irizpideak ehuneko 45a suposatzen dute, beraz, SPKLak 159.1.b) artikuluan xedatutakoa ez da bete behar eta lege bereko 145. artikuluan xedatutakoak agintzen du.

Azkenik, berme-epari dagokionez, SPK Legearen 111.5, azken idatz-zatian xedaturikoa betez, 6 hilabeteetan finkatu da, kontratuaren balio zenbatetsiak ez duelako 1.000.000 euroko kopurua gainditzen.

## **7.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKOEN ORRIA**

Kontratazio-espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria aztertu dira, SPKLaren 122 eta 124 artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa kontuan harturik, araututako xedapenekin bat datorrela egiaztatu delarik.

## **8.- KONTRATAZIO-ORGANOA**

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLaren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere. Hori kontuan izanik, eta ezarritako zenbatekoak gainditzen ez direnez, eskumena Alkate-Udalburuarena da. Hala ere, Tolosako udalaren kasuan, udal honetako Alkate-Udalburuak 2015eko uztailaren 28an emandako Dekretua kontutan hartuz, eskumena Tolosako **Tokiko Gobernu Batzarrari** dagokiola ondorioztatu du Idazkari honek.



Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLaren 190 eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Horri horrela, Kontutan izanik Idazkaritza eta Kontuhartzailtza Departamentuek egindako aldeko txostenak eta Udal teknikarien proposamena azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Tolosako udalerrian gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu-kontratuaren espedientea onartzea.

**BIGARRENA.-** Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua, 262.800,00 eurokoa %4ko BEZa barne, onartzea, ondokoaren arabera: lizitazio prezio orokorra: 136.656,00 euro, horietatik 131.400,00 euro printzipala eta 5.256,00 euro BEZari (%4) dagozkionak (bi urtez). Kontratuaren balio zenbatetsia 433.620,00 eurokoa da.

Hauek dira kontratuaren epe osoaren balio zenbatetsiak eta ordaindu beharreko kuotak (BEZa barne):

Anualidad	Valor estimado	Cuota anual (IVA incluido)
2019	131.400,00 €	136.656,00 €
2020	131.400,00 €	136.656,00 €
2021	131.400,00 €	136.656,00 €
10%	39.420,00 €	
<b>Total</b>	<b>433.620,00 €</b>	<b>409.968,00 €</b>

**HIRUGARRENA.-** Kontratazio honen xede diren zerbitzuak gauzatzeko gehieneko epea bi urtekoa izango da, kontratua sinatzen denetik; hala ere, beste urtebetez luzatu ahal izango da.



TOLOSAKO  
UDALA

**LAUGARRENA.**- Kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria onartzea.

**BOSGARRENA.**- Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (jardunbide irekia) eta dagokion iragarkia argitaratzea Tolosako udaleko Kontratugilearen Profilean, lizitatzailerik beren proposamenak 20 egun naturaleko epean aurkez ditzaten, iragarkia kontratugilearen profilean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

**SEIGARRENA.**- Erabaki horiek Kontuhartzailtza Departamentuari jakinaraztea.

#### **7. 65/2018 ETA 66/2018 FAKTURA-ZERRENDAK.**

Kontuhartzailtzak **65/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du. Kopuru osoa da **169,55 €**.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- **65/2018** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailtzari.

-----

Kontuhartzailtzak **66/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du. Kopuru osoa da **161.256,75 €**.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- **66/2018** faktura-zerrenda onartzea.





TOLOSAKO  
UDALA

**BIGARRENA**.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaituzat jo da 09:00etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**